




Aireportuek %60,3 handitu dute beren jarduera

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak

Urte bakoitzeko otsaila. Mila




Iturria: AENA.

EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopurua 400.000 ingurukoa izan zen berriro aurten-go otsailean. Zehazki, hilabete horretako urte arteko hazkunde tasa %60,3 izan zen, eta zifra horrek dinamismo handia erakusten du, nahiz eta oraindik ez dituen pandemiaren aurreko zifrak erabat berreskuratu.

EAEko esportazioak %21,4 hazi ziren urtarrilean

Ondasunen esportazioak atzerrira

Urte bakoitzeko urtarrila. Milioi euro



Iturria: Eustat.


Eustatek argitaratutako datuen arabera, **2023ko urtarrilean EAEko esportazioak %21,4 hazi ziren aurreko urteko hil beraren aldean.** Zehazki, guztizko balioa 2.720 milioi eurokoa izan zen, serie historiko osoan urtaril batean lortu den erregistrorik handiena baita.



Etxebizitzen salmenta %9,4 hazi zen EAEn

Etxebizitzen salmenta EAEn

Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: INE.

Urtarrilean EAEn erregistratutako etxebizitzaren salerosketa %9,4 igo zen aurreko urteko hilabete beraren aldean. Guztira, 2.000 etxebizitza baino gehiago saldu ziren, eta kopuru hori 2019an baino ez da gainditu azken urteotan.

Otsailean EAEko KPIa %5,8an kokatu zen

EAEko KPI indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Otsailean, Euskadiko KPIa %5,8an kokatu zen, aurreko hilean baino bi hamarren gorago. Hori horrela izanda, bada, bi hilabetez gora egin du, eta elikagaiek eragin dute berriro gorakada hori, balio maximoetan baitaude, eta, neurri txikiagoan, baita elektrizitatearen prezioek izan duten igoerak ere.